



BARREN
TOKIKOM

Egotetik egitera





Kiaren Crossover sorta.

Egun bakoitza abentura bat da. Aukera ezazu bidelagun onena.

Zatoz **KIA NAIA CARren erakuslekura**
Eibarko Corte Inglesera, eta parte hartu
100€ko lau txartelen zozketan.
Abenduaren 15etik 22ra.



Kia Stonic berria
12.900€tik aurrera
Crossover trinkoa



Kia Niro
19.900€tik aurrera
Hibridoa + Crossover



Kia Sportage
17.400€tik aurrera
GT kirol lerroa



The Power to Surprise

NAIA CAR

Apalategi auzoa 1 • Eibar

Tel.: 943 70 70 33 • www.naiacar.com

Kontsumo konbinatua (l/100 km): 3,8-7,6. CO2 emisioak (g/km): 88-177.

PVPR Kia Stonic: 1.2. CVT Concept Eco-Dynamics / PVPR Kia Sportage 1.6 GDI Concept 4x2 / PVPR Kia Niro 1.6 HEV Concept (bargak, garraioa eta promozio-kontuak barne). Gostaria eta matrikulazio gastuak ez dira prezioan sartzen. Eskaintza honek ondoko hauerentzat balio du: Niro eta Sportage sortetan gutxienez 10.000 euro Santander Consumerren Floziplan pionarokin finantzatzen duten norbanakoentzat -gutxienez 36 hilabeteko epean itzultzeko- eta Stonic sortetan gutxienez 8.000 euro KX1/KX2/KX3/KX4 kanpainaren bidez finantzatzen dutenentzat -gutxienez 48 hilabeteko epean itzultzeko-. Bi kasuetan iraunkortasun epea gutxienez 36 hilabetetako izan behar da. Eskaintza hau ez da bateragarria beste finantza eskaintza batzuekin eta 2017ko abenduaren 31 arteko balioa du penintsulako eta baleareetako kontzesionarioetan. Kreditu-etxeak aztertu eta onartu behar du finantzazioa. Kontsultatu itzazu baldintzak www.kia.com helbidean, Argizako modeloa ez dator bat eskaintzakoarekin. *Kontsultatu Kia-ren berrie-erakusketan.



HARRI & IRRI

BEC-era



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkaldunaren Argitargaria

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhua Andonegi **KAZETARIAK** Ainhua Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhua Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edure Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirre-azaldegi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBARKO UDALA

EUSKARA

elgoibar

BIZI BERRIA

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKARI



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ ETXEBIZITZA HUTSEN HARIRA

Duela pare bat urte mahai gainean jarri genuen Jaiki gazte taldetik Elgoibarko gazteok etxebizitza bat izateko genuen zailtasuna, eta aldi berean, herrian 732 etxebizitza hutsik egotearen kontraesana. Zentzu horretan bi eskaera egiten genizkion Udalari, abiapuntu gisa: Elgoibarko etxebizitza hutsen inguruko diagnostiko sakon bat egitea eta herritarren beharrei egokitutako etxebizitza politika aurrera eramatea.

Orduetik denbora joan den arren, bi berri izan ditugu azken hilabeteen gaia-ekin lotuak: batetik, Udalak etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak eskainiko dituela herriko gazteentzat, eta bestetik, herriko etxebizitza hutsen diagnostikoa martxan jarri duela. Bi albiste horien aurrean azpimarratu nahi dugu positiboki baloratzen dugula behingoan Elgoibarko Udalak etxebizitzaren gaiari heltzea. Dena den, kontziente izan behar dugu bi neurriok ez direla konponbidea izango eta lanean jarraitu beharko dugula herri mugimenduetatik etxebizitza eskubidea bermatua izan dadin. Izan ere, Udalaren aldetik emandako bi pauso horietatik abiatuta ondorioztatzen dugu agerian geratu dela gazte problematiken aurrean gazteok kolektibo moduan presio egitea ezinbestekoa dela instituzioek kontuan har gaitzaten eta gure egoera prekarizatuari buelta eman diezaiozun.

Etxebizitza lehen mailako beharrezana eta eskubidea den neurrian, kapitalak gobernatutako herri honetan ukatua izaten jarraituko du gazteontzat eta beste gizarteko esparru zabal batzuentzat. Neurriok betiko poltsikoak puztera (inmobiliariak, erakuntza enpresak...) bideratuak izateko kezka ere hor dago, adibidez diru laguntzen agerpenetik abiatuta alokairuen prezioak igoz. Horregatik jarraitzen dugu zilegitzen egoera horri buelta emateko sortutako proiektu oro, izan okupazioa zein bestelako edozein alternatiba. Argi dago, beraz, etxebizitza eskubidea oraindik ez

dagoela bermatua eta lehentasunezko lanketa izaten jarraitu behar duela. Hortaz hemen gure gonbidapena: aurrerantzean ere jaikitze, bai etxebizitzaren inguruan bai sufritzen ditugun bestelako zapalkuntzen aurrean. Bagoaz aurrera!

Jaiki

▶ OLENTZERO

Kaixo! Bizitzaren zikloari jarraituz, urte bukaera ate joka daukagu. Urtero moduan, data hauetan ere, herriko errepre-saliatuek jasaten duten egoera gogora ekarri nahi dugu. Sebas Etxaniz, 74 urte bete dituen elgoibartarra, 15 urte baino gehiagoz preso dutena. Yosu Lariz Elgoibartik kanpo urte luzeak daramatzen errefuxiatu politikoa. Eta haiekin batera larrigaixo dauden presoak lehenabizi, eta Espainiako zein Frantziako espetxeetan-gehienak urrun- dauden guztiak ere. Hurrengo hilabete hauetan izango dugu haien egoera salatzeko aukera: Gabon Zahar eguneko feriatan giza-katea; urtarilaren 13ko manifestazioa... Baina arreta jarri nahi dugu azken 40 urteetan egin izan den ekitaldi berezi batean: Olentzeroa. Urte luzez antolatu den ekintza honen bidez abenduaren 24an erreprezialatu politikoen egoera kalean erakutsi eta adierazi izan dugu. Aurten ere, nola ez, asmo bera daukagu: kantu bidez, beste batzuk ezkututzen saiatzen diren hori erakusteko.

Baina Olentzerok itxura ere eman behar du kalean: kantuen aldetik, irudiarren aldetik... Horrek, nahi eta nahi ez, konpromiso bat ere eskatzen digu.

Gauzak ez direla mugitzen dirudi arren, zirrikituak, arrakalak sortzen dira, eta Parisko mobilizazioak erakutsiko du gure mobilizazioek, gure ahaleginek eragina dutela jardunbide politikoan.

Mugi gaitezen, beraz. Aurten Olentzori bultzada berezia eman nahi diogu, eta horretarako, zure laguntza behar-beharrezkoa da. Parte hartzea eskatzen dizuegu. Eta lehen hitzordua abenduaren

20an izango dugu. Arratsaldeko 19:30ean Kimetz elkartean bilduko gara lehen entsegua egiteko.

SARE Elgoibar

▶ EKIN DIOGU!

Eman dugu lehen urratsa. Eman dugu euskararen alde egotetik euskararen alde egitera pasatzeko estreinako pausoa. Abenduaren 3an izan zen, Kalegoen plazan, ehunka elgoibartarren konplizitatearekin.

Ehunka elgoibartar izan gara, bai, lehen urratsaren lekuko, eta nahiko genuke 2018an egin nahi dugun ibilbidea elkarrekin egitea. Herri moduan, 11 egunetan. *Ahobizi* izatea erabakiko dugu askok, euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egiteko konpromisoa hartuz. Beste asko, berriz, *belarriprest* izango dira, euskara ulertu bai baina hitz egiteko gai ez direnak. Bietako bat izatea da kontua. Ekitea. Egitea. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra izango da. Eta datorren urtean berriz ere bilduko gara euskararen plazan abenduaren 3an. 11 egunetan egin eta bizitakoa plazaratzeko. *Ahobizi* edo *belarriprest* izan garenon esperientziak elkarri kontatzeko; hizkuntz ohiturak aldatzea posible dela erakusteko; ezinekoa zirudiena posible egin dugula ospatzeko. Baina hori datorren urtean izango da.

Bien bitartean, eskerrik asko, Beñat, deiadarrarengatik. Eskerrik asko, Julen eta Miren, ekitaldia aurkezteagatik; eskerrik asko, Aitor, Maialen, Iker eta Jone, *ahobizi* eta *belarriprest* zer diren erakusteagatik; eskerrik asko, Aitor, Jose, Iban, Mikel, Asier, Beñat, Patxi, Joana, Xabi eta Nerea *Beitxu, beitxu!* kantaren emozioa eta zirrara berriz ere gure azaletara ekartzeagatik. Eta eskerrik asko, bereziki, Kalegoen plaza bete zenuten elgoibartar guztioi. Elkarrekin egingo dugu.

Elgoibarko Euskarak 365 Egun Taldea



Angeles Sebastian Garcia

2017ko abenduaren 6an hil zen, 84 urte zituela.
Hileta meza, abenduaren 16an izango da,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.




I. URTEURRENA

Sotero Mancisidor Osoro

2016ko abenduaren 18an hil zen, 89 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduaren 16an,
19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.


*Kristau eta lagun legez
zu ziñen ezin hobia
zure betiko ametsa
ondokuak laguntzia
gure barnean zaittugu
beti, Sotero maittaa
oraingoz gero arte bat
beti zure familia.*



Antonio Navo Morgado

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barnean
eramango zaitugu betiko.*

2017ko azaroaren 29an hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Martitzenean Hezkuntza Publikoan egin zuten grebak jarraipen zabala izan zuen Elgoibarren eta Mendaron

Greba eguna izan zen martitzenean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola publikoetan, unibertsitatez kanpoko esparruetan. Oraingoan, Hezkuntzako mahaiko bost sindikatuak batu ziren murrizketen kontra, eta lan gatazkan dauden sektore guztiak deitu zituzten grebara: irakasleak, sukaldari eta garbitzaileak, heziketa bereziko langileak eta Haurreskolak partzuergoak. Grebak jarraipen zabala izan zuen Elgoibarren eta Mendaron. Hona datuak zentroz zentro. Elgoibar BHI institutuan irakasle eta langileen %70ek egin zuten bat grebarekin. Zehazki, irakasleen %68k eta garbitzaileen eta hezitzaileen %100ek. Meka Lanbide Eskolan, berriz, irakasleen %49k egin zuten greba, hau da, dauden 69 irakasleetatik 34k. Zen-



troan lan egiten duten beharginek ez zuten grebarik egin. Elgoibarko Haurreskolan, bestalde, erabatekoa izan zen greba. IMHn irakasleen %55ek egin zuten greba (52tik 29k).

Mendaroko Ikastolan ere jarraipen zabala izan zuen grebak, irakasleen eta hezitzaileen %79k egin baitzuten greba. 34

lagunetatik 27k. Elgoibarko Herri Eskolan ia erabatekoa izan zen grebaren jarraipena. Irakasleen %86k egin zuten bat grebarekin (50 ikasletik 43k) eta sukaldari eta heziketa bereziko langileen %100ek. Elgoibarren eta Mendaron, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentroetan izan zuen grebak jarraipen zabalena.

Bi urte eta erdiko kartzela zigorra jarri diote gizonezko bati gerrikoarekin beste gizonezko bati eraso egiteagatik

2013ko otsailaren 10ean Elgoibarko Kalegoen plazan eginitako eraso bategatik bi urte eta erdiko espetxe zigorra ezarri diote gizonezko bati. Gerrikoarekin jo zuen beste gizon bat aurpegian, eta ondorioz, eskuin begiko ikusmena galdu zuen hark. Gipuzkoako Fiskaltzak bederatzita urteko espetxe zigorra eskatzen zuen erasotzailearentzat, baina fiskaltzak eta defentsak akordioa lortu zuten eta bi urte eta erdiko espetxe zigorrera murriztu zuten zigor eskaera. Akusatua gertakariak onartu eta zigorrarekin ados zegoela adierazi zuen. Bi urte eta erdiko kartzela zigorraz gainera, 29.371 euroko kalte ordaina ordaindu beharko dio biktimari, eta lau urtean ezingo du erasotzailearen ez hurbildu ez berarekin harremanetan jarri.

Akusazioaren idatziak jasotzen duenez, 2013ko otsailaren 10ean izan zen eraso, 2:30ean, Kalegoen plazan. Bere lagun eta beste lagun talde baten arteko liskar baten lekukoa izan zen biktima. Bi gizon taldeen arteko borroka amaitzeko ahalegina egin zuen, eta une horretan, "argi ez dauden arrazoiegatik" beste gizon taldean zegoen inputatuak "berbarik esan gabe" soinean zuen gerrikoa kendu eta aurpegian jo zuen biktima. Mendaroko Ospitalera eraman zuten lehenik eta Donostiako Unibertsitate Ospitalera gero. Bost egunez egon zen ospitaleratua.

Kolpearen ondorioz eskuin begiko ikusmena galdu zuen biktimak, begi horretatik ia itsu geratzeraino.

Eguaztenean inauguratuko dute jaiotza mekanikoa

Elgojaitza elkarteak eguaztenean inauguratuko du aurtengo jaiotza mekanikoa, eta eguenetik aurrera egongo da publikoarentzako zabalik. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:30era egongo da zabalik, eta asteburu eta jai egunetan 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.

7.895 kilo janari eta 4.965 euro bildu dituzte aurtengo janari bilketan

Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak deituta janari bilketa egin zen Elgoibarren abenduko lehen asteburuan, eta aurtengo kanpainan 7.895 kilo janari eta bonotan 4.965 euro bildu dituzte. Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Bergaran duen biltegira bidali da janaria, eta handik helaraziko dizkiete elikagaiak beharra duten familiei. Gizarteratze Mahaiak eta Udalak eskerrak eman nahi dizkie janari bilketan parte hartu duten herritarrei eta bolondresei. Horrez gain, Sanlo eta C.D. Elgoibar klubei eskerrak eman dizkiete, bereziki, elikagai bilketa kanpainarekin bat egin dutelako aurtengo ere. Bi klub horiei esker 250 kilo janari bildu dira.



Hainbat elgoibartar eta mendaroar izan dira Parisko manifestazioan

"Bakea Euskal Herrian: Orain presoak" lelopean manifestazio jendetsua egin zuten Parisen, joan den zapatuan. Hainbat elgoibartarrek eta mendarorrek parte hartu zuten mobilizazioan. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Euskal Herri osotik joandako 11.000 lagun inguru bildu zituen manifestazioak.



Danobatek urrezko Bikain ziurtagiria eskuratu du

Elgoibarko Danobat kooperatibak urrezko Bikain ziurtagiria eskuratu du. Danobatek Ibilbide luzea du Bikain ziurtagiriari dagokionean, izan ere, Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren sorreran, 2008an, zilarrezko Bikain jaso zuen eta. 2017an, Eusko Jaurilaritzak bideratutako Euslan egitasmoaren baitan finkatutako erronka izan da urrezko ziurtagiria lortzea, eta bi eguneko ebaluazioaren ondoren lortu du. Urrezko Bikain ziurtagiria eskuratu duen Debabarrenako lehenengo industria enpresa izan da.

Erreplika prehistorikoen museoa zabaldu dute Artetxen

Jose Julian Marquezek aurre-historiako tresnen erreplikak egiten ditu eskuz. Azken urteotan hainbat erakusketa egin ditu, eta umeentzako tailerrak ere antolatu izan ditu, garai hartako ohiturak eta ehiza moduak azaltzeko. Orain pauso bat harago joan da, eta museo bat ireki du azken urteotan egin dituen tresna eta erreminta guztiak erakusteko. Pedro Mugarutzako Artetxeko eskolaurreko lokalean dago museoa, Mufomi fosil eta mineralen museoaren lokalean. Elgoibarko Mufomi museoa Euskadiko fosil eta mineralen bildumarik handiena du. Bihar, bi museo hauek bisitatzeko ate irekien jardunaldia antolatu dute Morkaikok eta Mendaroko Leizarpe espeleologia taldeen eskutik. 11:00etan jarri dute hitzordua, Artetxeko eskolaurreko lokalean.

45 urtetik gorako langabeentzako trebakuntza ikastaroa

Lan esperientzia zehatzik ez duten eta 45 urte baino gehiago dituzten Elgoibarko bizilagunentzako doako prestakuntza-laneratze ikastaroa eskainiko dute IMHn, Elgoibarko Udalak lagunduta. Abenduaren 15ean hasiko da ikastaroa eta urtarrilaren 29ra bitartean 45 orduko prestakuntza jasoko dute parte hartzaileek. 12-15 lagun inguruko taldea sortu nahi dute. Hainbat lagunek dagoeneko eman dute izena ikastaroan, baina oraindik badago izena emateko aukera. Interesatuak honako telefono zenbakira deitu behar dute izena emateko: 943 744 132 (Leire Alberdi) edo honako loturan idatzita ere: www.imh.eus/eu/kontaktua





V. URTEURRENA

Kerman Moreno Iriondo

*Mendietarantz pausoa luzea
bizitzak krudel haizea
nola gainditu, nola arindu
zu hemen ez izatea.
Zure goxoa, zure barrea
gertu beti umorea
ez hiltzen zenbat saiatzen garen
bizitzen gutxi, ordea,
gugan landatu dituzunekin
segiko dugu bidea.*

Etxekoak

2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela.
Haren oroimenez V. urteurreneko meza izango da, eguaztenean,
abenduak 20, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



V. URTEURRENA

Kerman Moreno Iriondo

2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela.

*Heriotzaren ondoren
gure laguna ez ikusteak
edo berarekin komunikatu ezin izanak
ez du esan nahi betiko galdu dugunik.*

Zure lagunak



Asensio Urbieta Uranga

2017ko azaroaren 30ean hil zen, 81 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



*Billaletik begiratuta
Atxuri gaina txuri
tristuraz ditu zeruak
malko zuriak isuri
hutsune galanta utzi diguzu
etxe aldean guri,
baina seguru zure itzalak
babestuko gaituela beti.*

Maitasunez, etxekoak



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Auto-gidari gehienak ez dira zebrabide honetan geratzen: "Pedro Muguruza kaleko zebrabide honetan, lñigez Karkizao kalera doan tunel parean, autoak oso azkar pasatzen dira, eta auto-gidari asko ez dira geratzen. Ingurune horretan aparkatutako kotxeek ez diete uzten gidariei tuneletik oinezkoren bat datorren edo ez ikusten, eta ondorioz, ez dira geratzen. Ezbeharren bat gertatu baino lehen egoera honi irtenbideren bat ematea eskatzen dugu".



Trenbide kalean uso gehiegi dago: "Trenbide kalean arazo handia daukagu usoekin. Gehiegi daude. Lehen Aita Agirre eraikinean egoten ziren, baina orain, handik irten eta gure etxeetako tailatupeetan egoten dira. Ez dakit zer egin daitekeen, baina irtenbideren bat aurkitu behar dela iruditzen zait".



Irisgarritasun oztopoak ezabatu behar dira ingurune honetan: "Pedro Muguruza etorbidetik lñigez Karkizao kalera pasatzeko dagoen tunelean, soilik eskailerak daude. Ondorioz, gupildun erruberan datozenak edota umeen kotxeekin pasatu behar dutenek buelta guztia eman behar dute goiko kalera iristeko. Hori dela eta, zona horretan aldapatxo bat egitea eskatzen dugu. Eskerrik asko".



Seber Uribe igeriketa entrenatzaileari, eskerak: Elgoibarko Master igeriketa taldeko kideek Seber Uribe entrenatzaile ondarrutarrari eskerrak eman dizkiote, azken sei urteotan Elgoibarren, igeriketaren alde, maila guztietan eginiko lan ikaragarriagatik. "Gure herria kirol honetan erreferente izatea lortu du". Esker oneko oroigarri gisa *Fatigue dans l'ancienne piscine* (nekea igerileku zaharkituan) margo-lana oparitu zieten taldekideek. Gouache eta akuarela teknikak uztartuz margotutako obra da. Joera inpresionista adierazten du figurazio artelan honek.



Bihotz Txatalak obra taularatu zuten abenduaren 1ean.

40 urtez oholtzan, euskaraz

1977ko udazkenean sortu zen Taupada antzerki taldea, kultura eta euskara sustatzeko helburuarekin. Antzerkia euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten, eta 40 urteren ostean, konpromiso horri eusten dio taldeak. Lagun talde batek sortu zuten taldea, baina gaur egun Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañaga dira Taupadaren bihotza eta arima. 40 urteko ibilbidean une gozoak eta gaziak bizi izan dituzte, baina beti ilusioz. 40 urte bete dituzte, eta osasunak laguntzen dien bitartean, oholtzan jarraitzeko asmoa dute. (40 urteotako ibilbidea laburbiltzen duten argazkiekin bideo bat osatu dute, eta www.barren.eus webgunean duzue ikusgai).

- AINHOA ANDONEGI -

Gaur egun antzerkigintzan aritzea ez da erraza, baina orain dela 40 urte ere egoera ez zen hobea. Hala ere, antzerkizale talde batek Taupada taldea sortu zuen, kultura eta euskara sustatzeko helburuarekin. Edurne Lasak betidanik izan du antzerkia bihotzean, eta bere bizitza arte eszenikoei lotuta egon da beti. Jose Mari Larrañaga 'Larra', aldiz, kasualitatez iritsi zen taldera. Lagunak zituen taldean, eta muntaia lanetan laguntzen hasi zen, baina aktorearen batek kale egiten zuenean, berak bete izan ditu hutsuneak. Ia konturatu gabe sartu zitzaion antzerkiaren arra barrura, eta 1980an debutatu zuen ofizialki, *Liliput* obran. Orduetik, Taupadaren zutabeetako bat da.

Oihu gorra izan zen taldearen lehen obra. 1978. urtea zen, eta gizartearen egoera, langabezia, errepresioa eta egoera politikoa nahasiak ziren orduan ere. Aita Agirre plazan taularatu zuten obra. Plaza jendez beteta zegoen, denak herrikideen estreinaldia ikusteko zain. Orduan ere ausart jokatu zutela gogoratu

du Edurne Lasak: "Dena ondo zihoan, Guardia Zibil bat eszenan sartu zen arte. Jendeartetik sartu zen, eta ikusleek pentsatu zuten benetako Guardia Zibila zela, eta asko korrika joan ziren. Garai hartan Guardia Zibilaren pertsonaia sartzan ausartu ginen".

40 urte eta hamaika obra pasatu dira ordutik, eta beti euskaraz. Erraz esaten da, baina bidea ez da beti samurra izan. Oztopo asko gainditu behar izan dituzte 40 urteko ibilbidean, eta tartean, taldearen banatzea. Edurne eta Larrak jarraitu zuten Taupada taldearekin, eta beste taldekideetako batzuek Ekekei taldea sortu zuten. 1986an *Ponpa eta Mobis* antzezlanaren estreinatu zuten, eta hura izan zen biak bakarrik egin zuten estreinako obra. Talde amateur bezala hasi ziren, baina urte batzuetan talde profesional gisa funtzionatu zuen Taupadak, eta aktoreak kontratatu ere egiten zituzten. Urte "oparoak" izan zituzten. Gaur egun berriz ere amateur moduan dihardute. Taupadak badauka izena antzerkiaren munduan, baina hala ere, obrak saltzea zaila dela zehaztu

dute. Baina beraien antzerkia bihotzean daramate, eta antzerki obrak prestatzeaz gain, beste hainbat lan ere egiten dituzte. Urte askotan eman izan dituzte antzerki tailerrak Euskal Herriko Unibertsitatean, ikastetxeetan, eta gaur egun ere antzerki tailerra eskaintzen dute Elgoibarren, aktoreak formatzeko. Jende asko pasatu da tailer horietatik, eta horietako batzuk aktore egin dira eta beste batzuk aktore bihurtzeko bidean ikusten dituzte, eta horrek satisfazio handia ematen die. Baina erakusteaz aparte, beraien ere eskola asko jaso dituzte: "Autodidaktak izan gara hein handi batean, baina ikastaro asko egin ditugu, eta alde horretatik eskerrak eman behar dizkiot Elgoibar Ikastolari, nigan jarri duen konfiantzagatik", esan du Edurnek. Izan ere, Ikastolako irakasle izan da Edurne urteetan, eta opor garaia aprobeztatzen zuen antzerkigintzako eskolak hartzeko. "Ikasitakoa gero praktikan jartzen nuen Ikastolako umeekin, eta arduradunek jakin izan dute hori baloratzen. Asko eskertzen diet".

JOSEMARI LASA GOGOAN

40 urteko ibilbidean jende eta lagun asko izan dituzte inguruan, baina bada bat bereziki garrantzitsua izan dena; Edurneren neba Josemari Lasa. "Beti izan dugu alboan babesa eskaintzen, izugarri lagundu digu eta 40. urteurren honetan ezin ginen berarekin ahaztu". Taupadaren ibilbide honetan obra eta pertsonai asko sortu dituzte baina badira bi pertsonai Edurnek eta Larrak bereziki maite dituztenak: *Mari Sorgin* (1998) eta *Printze Txikia* (2000). Mari Sorgin gaztelerazko irratsaio bateko pertsonaia zen. Edurneri izugarri gustatzen zitzaion, eta behin neba Josemariri esan zion gustatuko litzaiokeela pertsonai hori antzeztea. Ipuina kontatu zion nebari eta berak idatzi zuen obra. *Printze Txikia* pertsonaia ere betidanik gustatu izan zaio Edurneri, baina sekula ez zuen pentsatu antzerki bihurtzea. Nebak prestatu zuen ipuin hura ere antzerkirako. Taupadaren urterik onenetarikoak izan ziren haiek. Bi obra horiekin emanaldi pila bat eskaini zituzten Euskal Herrian, eta baita Euskal Herriatik kanpora ere. "Bi obra horiek Josemariren ekimenez sortu eta antzeztu genituen, eta Josemariri eskerrak eman beharrean gaude". Era berean, badute obra maestra bat, aktore bezala exigentzia berezia eskatzen duena: *Zaldi bat, bi kotxe eta hogeita hamar ile* (1994). Aktore bakoitzak hainbat pertsonaia interpretatu behar izan zituen, eta asko ikasi zuten. Edurnek oso maitea du obra hori.

Ilusioari eta lanari esker iritsi da Taupada 40. urteurrenera

Sormen lanak albo batera utzi gabe, ospakizunen unea da orain Taupadarentzat. 40. urteurrena ospatzeko ekitaldiak oraindik ez dituzte lotuta, baina argi daukate urte osoko ospakizunak izango direla, udazkenetik udazkenera. Bi obra taularatu dituzte orain abenduan, eta datorren urteko udazkera bitartean beste ekitaldu batzuk egingo dituzte, "40 urte ez direlako egunero betetzen". Garai hartan sortu ziren beste antzerki talde asko bidean geratu dira, baina Taupadak bizirik dirau. Sormenaren iturritik edaten jarraitzen dute, gogor lanean, eta ideiak garbi edukiz. Bidean beraien ilusio berbera duen jendea topatu dute, eta horrek lagundu die dauden lekuraino iristen. "Ilusioak eraman gaitu lan egitera eta gurdinari tira egitera", esan du Edurne Lasak, eta osasunak laguntzen dien bitartean, oholtzan jarraitzeko asmoa dute. Zailtasun guztien gainetik, buruak ahal duen bitartean sortzen jarraituko dute, beti bezala, euskaraz.

Taupadaren obrak



- ◆ Oihu gorrak (1978)
- ◆ Liliput (1980)
- ◆ Haik, Maik eta Zeferina (1982)
- ◆ Behin batean ju, ju, ju (1984)
- ◆ Ponpa eta Mobis (1986)
- ◆ Ikastolaren 25. urteurrena. Ijitoak (1987)
- ◆ Eta, etxeok zer moduz? (1988)
- ◆ Terribilis doktorea (1992)
- ◆ Zaldi bat, bi kotxe eta hogeita hamar ile (1994)
- ◆ Argitxo iratxoa (1995)
- ◆ Tandem zirkus (1997)
- ◆ Lorategi urperatuak (1997)
- ◆ Mari Sorgin (1998)
- ◆ Argitxoren abenturak (1999)
- ◆ Printze Txikia (2000)
- ◆ Zaunka egiten ez zekien txakurra (2002)
- ◆ Kanten azken egunak (2005)
- ◆ Zu zara zarataaaaa (2007)
- ◆ Intsekt (2007)
- ◆ Gaur ni, baina bihar agian (2008)
- ◆ Zuri guztiak ez dira irin (2008)
- ◆ Zugarra ala zukarra (2009)
- ◆ Heriotzaren korridorea (2009)
- ◆ Isladak (2010)
- ◆ Komediak oroimenean (2013)
- ◆ Rusini (2012)
- ◆ Ikuskizun eszenikoak (2013)
- ◆ Erotik (2014)
- ◆ Euskararen presentzia lan munduan (2015)
- ◆ Bohemioen kluba (2015)
- ◆ Memoriaren Ganbaratik (2016)
- ◆ Bihotz txatalak (2017)
- ◆ Ikasgaia (2017)



JON OLIVARES SARA IRIONDO


'Ikasgaia' antzezlaneko protagonistak

'Ikasgaia' obra taularatuko du Taupadak gaur, Herriko Antzokian

'Ikasgaiak' antzezlanaren taularatuko du Taupadak gaur gauean, Herriko Antzokian. Irakasle baten iluntasunak eta ikasle gazte baten argitasunak bat egingo dute obran. Jon Olivares izango da irakaslea eta Sara Iriondo ikaslea. 22:00etan hasiko da emanaldia. Arduradunek jakinarazi dute ikuslearen sentsibilitatea mindu dezakeela obrak.

Ikasgaia obra aspalditik zeukaten kaxoian gordeta Taupadako arduradunek, pertsonaiak interpretatzeko aktore egokirik aurkitzen ez zutelako, Jon Olivares eta Sara Iriondo agertu diren arte. Edurne Lasak eta Jose Mari Larrañagak argi ikusi zuten bi horiek zirela obrako protagonistak. Duela bi urteko Gabonetan irakurri zuten estreinakoz *Ikasgaia* obraren gidoia Sara Iriondok eta Jon Olivaresek. Gaztelaraz zegoen. Izugarri gustatu zitzairen, eta berehala hasi ziren pertsonaiak gorpuzten. Anjel Ugarteburuk euskaratu zuen testua, baina bi urteko epealdi honetan moldaketa asko izan ditu obrak. Hasieran hiru pertsonaia zituen istorioak, baina hainbat arazo eta trabaren ostean, bi aktoreekin interpretatzeko moldatu dute. "Eta egia da orain horrela hartzen diogula zentzua istorioari", esan dute aktore protagonistek.

Urduki daude biak, baina aldi berean pozik eta ilusioz. Erronka handia da beraiantzat: "Lehenengo aldiz egongo gara biok bakarrik taula gainean ordubetez, horrek suposatzen duen guztiarekin". Gidoia sakona da, obra dramatikoak da, pertsonaiak konplexuak dira eta lan handia egin dute azken bi urteotan. Une zailak ere izan dituzte, eta behin baino gehiagotan pentsatu izan dute ez zela obra gauzatuko, baina gogor egin dute lan eta azkenean gaur estreinatuko dute obra. Edurne Lasak eta Jose Mari Larrañagak konfiantza osoa jarri dute beraiengan, eta hori "ohore" bat dela adierazi dute: "Eurak konfiantza gehiago dute gudan guk geuk baino. Edurne Lasa eta Josemari Larrañagarekin lan egitea pribilegio bat izan da: Gogorra, baina aldi berean oso interesgarria izan da prozesu guztia".



Ikasgaia obra dramatikoak da, gai sakonekoa eta arduradunen arabera ikuslearen sentsibilitatea mindu dezake. Irakasle eta ikasle baten arteko harreman menperatzailearen karikatura moduko bat egiten du. Irakaslearen etxera joango da ikaslea *ikasgaia* jasotzera, eta konturatuko da irakaslea oso berezia dela. 50eko hamarkadako irakasle iluna da. Ikaslea ere ez da ohiko ikaslea. Ikaslearen gatzetasunak transmititzen duen argitasunak irakaslearen iluntasunarekin kontrastea egingo du. Ez dakite ikusleak nola hartuko duen istorioa. Umore absurdoarekin jolastuz txiste batzuk ere sartzen dituzte tarteka, baina esan dutenez, ikusleak berdina egin dezake barre edo negar.

Jon Olivares eta Sara Iriondo aspalditik dira Taupadako kide. Taupadak antzerki tailerrak ematen zituen garai batean Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Eskoriatzako saio batean ezagutu zuten Jon Olivares. 2010. urtean zen, eta Taupada *Is-ladak* antzezlanaren prestatzen ari zen. Tramollista paperean jarri zuten Jon, Nerea Gilekin batera. Paper txikia izan zuen obra hartan, baina poliki-poliki, paper garrantzitsuagoak hartu izan ditu. Sara Iriondok denbora gutxiago darama taldean. Argentinan bizitzen egon zen, eta handik itzuli zenean argi zeukan "beteko zuen zerbait" egin behar zuela. Antzerkigintzan sartzea erabaki zuen. Bost bat urte izango dira jada Taupadan hasi zela. *Russini* izan zen bere lehenengo obra. Taldera iritsi eta berehala taula gainera igo zen, eta ordutik hainbat lanetan hartu du parte. Hala ere, biek argi daukate hau dela benetako aktore lanetan jarriko dituen papera. Elgoibarren estreinatuko dute, Elgoibarko publikoaren aurrean. Elgoibarko publikoa "ederra" dela aipatu dute, "beroa", eta esker onekoa. Beste herrietan publiko hotzagoa aurkitu izan dute, publiko "zaila", baina horrek ere ikasteko balio izan die: "Tentsio puntua mantentzen laguntzen du horrek, eta taula gainean ezinbestekoa da tentsio hori, gauzak ondo egiteko". *Ikasgaia* obra Elgoibartik kanpora antzeztea ere gustatuko litzaieke.



Sabino Lizarralde Churruca

"Lizarralde garraioak"

2017ko abenduaren 10an hil zen, 96 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Aita, aitxitxa ta birraitona
baina batez ere, pertsona ona.
Orain gurekin egon ez arren,
gugan utzi duzu aztarna sakona.**

Etxekoak



I. URTEURRENA

Ezequiel Monforte Santamaria

2016ko abenduaren 18an hil zen, 79 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduaren 16an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde z aurretik eskerrak.



Manolo Untzilla Ondarre

2017ko abenduaren 8an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko klubari emandako guztiagatik.



C.D. Elgoibar



Manolo Untzilla Ondarre

2017ko abenduaren 8an hil zen, 93 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana. Esker berezi bat C.D. Elgoibarri egindako omenaldiagatik.

**Txinpartia euki dozu
bizitza luzian,
zenbat broma ta barre
umore onian,
pintzel fiña eskuan
baita foballian,
Manolo zu zaittugu
gure bihotzian.**





O lenteroren zakua

Zergatik erosten duzu auzoko denda txikian?

Gehigarri honetan aurkituko dituzun boletoekin deskontuak eskuratuko dituzu, **abenduaren 15etik 22ra** arte. Erosketa bakoitzeko boleto bakarra erabili daiteke, eta ezin zaizkie bestelako deskontuei gehitu.

1. Tratu gertukoagoa eta pertsonalizatua eskaintzen dizutelako.
2. Aholkatzen dizutelako, eta era horretan zure konfiantza irabazten dutelako.
4. Gertuan erosita, hemen bertakoa balioesten duzulako.
5. Hemen bertako identitate kulturala zaintzen duzulako.
6. Gure bizilagunak direlako eta etxetik gertu ditugulako.
7. Auzoetako gizatasuna mantentzen dutelako, eta gizarte harremanak sustatu
8. Bizia ematen dietelako gure auzoei, eta askok auzoetako jaiak antolatzen eta auzoetan egiten diren ekin-tzetan laguntzen dutelako.
9. Eskaparateek kaleak janzen dituztelako.
10. Denda handien aldean, enplegu egonkorragoa eta kalitatezkoagoa sortzen dutelako.





Rosario, 14 - Tel.: 943 743 555 - Elgoibar



**Tiket hau aurkeztuz
%10eko deskontua
izango duzu zure erosketan**



San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 742 535

Luxenter energia
lepokoa

29,90€



Luxenter sorpresa
lepokoa

19,90€





Lotus erlojua
swarovsky txuriekin:

119€



Lotus erlojua
swarovsky urdinekin:

129€

Eraztunak: **49€**

Belarritakoak: **129€**



Erosi, eta 250€ko txartelen zozketan sartuko zara

Kupoi honekin
%10eko beharapena
zure erosketetan



GARATE
JANTZI-DENDA



Kala
LORADENDA
San Frantzisko, 24 - Elgoibar
943 744 516 - kala.loradenda@gmail.com



Tiket hau erakutsiz gero
erosten duzun artikuluetan
%10eko deskontua lortuko duzu.

Arauri
San Bartolome 6
943 741 789



Tiket honekin
kosmetikako tratamenduetan
%10eko deskontua

GABONETAN
EDERTASUNA
OPARITU
EZAZU

Era guztietako
OPARI BONOAK



Bono hau erakutsiz gero,
%15eko beharapena
lortuko duzu

Cristina Garcia
Espezialista en Terapia Naturalak

Erreforma Labea 19 - 943 74 20 38 - gipuzkoilagorria.com

Ferpi
San Bartolome, 38
943 740 815

BRAVE SOUL
LONDON

gazteentzako
marka
XStik 2XLrainoko
neurriak.



%15eko
deskontua
txartel hau
ekarritz
gero.

ferpi moda elgoibar

GYS SPORT CASA ELGOIBAR
ASTIGARRAGA

Errosario, 18 943 743 268
Errosario, 21, behea 943 744 386

Bonoa ekarritz gero zapatiletan
%15eko
deskontua lortuko duzu.



NPI



ADIDAS - NIKE - VANS
DC - PUMA - REEBOK



Hizkuntza ohiturak aldatzea da 'Euskaraldia'-ren erronka nagusia. Euskaraz jakin eta ulertzen dutenekin euskaraz jardutea 11 egunez

Abenduaren 3an aurkeztu zuen *Euskaraldia* proiektua Elgoibarko *Euskarak 365 Egun* Taldeak. Kalegoen plazan izan zen aurkezpena, ehunka lagunen aurrean. *Euskaraldia* zer den azaltzeko eskatu diegu antolatzaileei, eta aurkezpeneko irudiekin osatu dugu erreportajea.

Alde egotea ez delako nahikoa

Lau urtez euskararen alde gaudela plaza publikoan eta modu partehartzailean aldarrikatu ondoren, euskararen alde egotetik euskararen alde egitera pasatzea proposatu nahi diegu elgoibartarrei. Izan ere, euskararen alde egotea ondo dago, baina ez da nahikoa euskaraz egiten ez badugu. Euskararen alde gaude, euskaraz badakigu, baina erabili ez dugu hainbeste egiten. Kale-erabileraren azken neurketan ere 3,8 puntuko jaitsiera eman da, duela lau urteko datuekin alderatuta.

..... Zer da *Euskaraldia*?

Elgoibartarrok gure artean euskaraz gehiago egiteko metodo berria da. Hizkuntza ohiturak aldatzea da *Euskaraldiak* proposatzen diguna. Euskaraz egitea euskaraz jakin eta ulertzen dugunon artean. Sinplea eta erraza ematen du, baina sakona da oso, *Euskaraldiak* eskatzen eta eskaintzen diguna.



Ahobizi eta belarriprest

16 urtetik gorakoentzat da proiektua eta izena eman beharko da. Izena ematerakoan bi aukera egongo dira: *ahobizi* eta *belarriprest*. *Ahobizi*: 11 egunez euskaraz jakin eta ulertzen dutenekin euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dutenak dira. *Belarriprest*: euskara ulertzen dute, nahiz eta berba egiteko gauza izan ez, eta ekimenaren 11 egunetan eurei euskaraz egiteko eskatuko dute. *Ahobizi* eta *belarriprest* direnek txapa bat eramango dute paparrean.

Elkarrizketa elebidunak: nik euskaraz eta zuk erdaraz

Euskaraz hitz egiteko gai ez direnek ere paper garrantzitsua izango dute *Euskaraldia* proiektuan. Euskara ulertzen badute, 11 egun horietan eurei euskaraz egiteko eskatuko dute, nahiz eta beraiek gaztelaniaz erantzun. Elkarrizketa elebidunak sustatzeko proposamena ere badakar proiektuak. Nik euskaraz egingo dizut, ulertzen didazulako, eta zuk erantzun gaztelaniaz, nahiago baduzu.



Euskal Herri osorako proiektua

Euskaraldia ez da esperimendu bat. Dagoeneko herri batzuetan probatu den metodologia da, eta orain arteko esperientziak oso positiboak izan direnez, Euskaltzaleon Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Herri osorako proiektua prestatu eta koordinatuko dute, beste 25 elkarte eta erakunderekin elkarlanean. Azken datuen arabera, 40 herri inguru gabiltza proiektua lantzen, Elgoibar tartean.

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra: 11 egun euskaraz!

Euskaraldia 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra izango da. Urtebete lehenago aurkeztu dugu, aurretik lan asko daukagulako egiteko. Urtarrilean hasiko gara Elgoibarko elkarte-erakundeetara joan eta proiektua aurrez aurre aurkezten. Elgoibartarrak *ahobizi* edo *belarriprest* izateko izena ematera animatzea izango da gure zeregin nagusia.

Ez da kanpaina bat

Euskaraldia ez da kanpaina bat. Ez da 11 egun horietara mugatuko. Proiektuan parte hartzeko izena ematen dutenekin adibidez, harremanetan egongo gara proiektuak zer eragin duen neurtzeko. Hasteko, proiektuari ekin aurreko diagnosis egingo dugu, bakoitzaren hizkuntza-portaerak zein diren ikusteko. Gero, proiektuak iraungo duen 11 egunetan bizi izandakoa ere jasoko dugu. Eta, azkenik, proiektua amaitu ondoren ere (hiruzpalau hilabetera), ekimenak bakoitzarengan izan duen eragina neurtuko dugu.



Elgoibarko Talde Eragilean parte hartzeko

Elgoibarren 13 elkarte eta erakunde osatzen dugu *Euskaraldia* proiektuko Talde Eragilea: Danobat Taldea, Elgoibarko Udala, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea, Elgoibar Ikastola, Euzko Alderdi Jeltzalea, Elgoibarko Haurreskola, Herri Eskola, Ikastolako guraso-kontseilua, Inazio Bereziartua Musika Eskola, Kalmua guraso-elkartea, Morkaiko Mendizale Elkarte, Sortu eta Udal Euskaltegia. Une honetan Talde Eragilea hori da, baina beste edozein elkarte edo erakunde ere parte har dezake, hala nahi izanez gero. Bestalde, herritarrek ere parte har dezakete norbanako moduan. Talde Eragilean parte hartzeko deitu edo idatzi Elgoibarko Izarrara (943 74 16 26 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus).



Bertako enpresako teknikoak, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

Ospakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien aldeko hautua.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Eurek sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango ballabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu zuten pertsonak. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute; hau da, larrialdietan bakarrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, astelehenetik igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan

onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariek egiten duten lan onak, gerora dauden abisuen kopurua txikitu egiten du, nabarmen.

Euskararen garrantzia

Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egiterakoak, komertzialen bisitatan, administraziokoekin berba egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Askok eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteko. Kontratu librean egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik.

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute eskaintzen dituen tarifengatik. Oinarrizko kontratua hileko 80 euro

Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

- 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat
- Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan
- Iraupen-konpromiso gabeko kontratua
- Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan
- Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena

ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. "Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzua-rengatik eta inguruko eskualdeetan prezio hau ia erdira jaitea, bertan ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan", diote enpresakoek.

Larrialdi zerbitzua

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastatsuetara heltzeko: bezero guztiak dute igogailuaren larrialdi sistema telefonoetara lotuta eta guztiak dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabalkundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara.

Bizkaian, Durangon eta Bilbon-biltegiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa. 94-652 39 35 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota.



ETORKIZUNA PRESTATZEN

hitzaldia

Hizlaria: Conchi Rodriguez ATZEGI fundazioko arduraduna

Abenduak 18, astelehena
Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan



elgoibar

Elgoibarko Izarraren TONBOLA

Aurreko lau urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan.



Elgoibarko Izarraren aldeko
TONBOLA

Abenduak 24,
11:00etatik 14:00etara,
Kalegoen plazan

1.200 erregalu
baino gehiago...



... eta opari
gehiago!



Harremanetarako:

barren@elgoibarkoizarra.eus edo 943 744 112

Elgoibarren Prozesu eta Produktu
Berrikuntzan Ingeniaritza Gradua
ikas dezakezu:

- ☑ Zer egiten du Ingeniari batek?
- ☑ Zertan datza Eredu Duala?

Zatoz eta azalduko dizugu!



Hurrengo informazio saioa: Urtarrilak 20

Baieztaatu bertaratzea: 943748264-n edo ingeniaritza.ehu@imh.eus Saio guztien egutegia: www.imh.eus/ingeniaritza-duala



**GWN 48430
GRUNDIG
GARBIGAILUA**

Motor inverter - 8KG
1400RPM
A+++

429€

ROOMBA 605 IROBOT XURGAGAILUA

Autonomia garbitzerakoan.
Bere karga lekura bueltatzen da.
Malla desberdinetako lurretan gelditu egiten da.



259€



43"

419€

JVC LT - 43VF52K TELEBISTA 43"

Smart TV
Full HD
600 HZ. PPI

**MILAR
BIRE**


Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

Dendako prezioak.
Produktuak agortu arte.

BON 10+

Zure 20 euroak 30 bilakatzen dira.

Pirritx eta Porrotxen emanaldirako sarrerak bihar jarriko dituzte salgai



Urtarrilaren 2an etorriko dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Elgoibarrera, *Borobilean* ikuskizunarekin. Bi saio eskainiko dituzte, 16:30ean bata eta 18:30ean bestea, eta bihar jarriko dituzte salgai sarrerak. Bi aukera daude sarrerak eskuratzeko: Herriko Antzokiko leihatilan 19:15etik 21:15era edo Kutxabanken web orritik, 19:15etik aurrera. Bihartik aurrera, sarrerak leihatilan erosteko aukera ere eskainiko dute zine emanaldiak baino ordu erdi lehenago, beti ere, sarrerak agortu ez badira. Bakoitzak lau sarrera erosi ahal izango ditu gehienez. Prezioak ondorengoak izango dira: Kuota arrunta: 6 euro haurrek / 8 euro helduek. Gazte Txartela dutenek eta Ludotekako bazkideentzat: 4 euro haurrek / 6 euro helduek.

Elgoibarko Izarraren Eguberrietako bertso saiorako sarrerak salgai daude

Abenduaren 28an izango da aurten Eguberrietako bertso saioa, eta dagoeneko salgai daude emanaldirako sarrerak. Interesatuek abenduaren 22ra arte erosi ahal izango dituzte sarrerak, Elgoibarko Izarraren egoitza (Ubitarte, 4). Ondoren, sarrerarik geratzen bada, egunean bertan jarriko dituzte salgai Kiroldegiko leihatilan. Sarreraren prezioa 11 eurokoa da (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 10 euro). Aurten ondorengo bertsolariak etorriko dira: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Igor Elortza, Miren Arretxe. Gai-jartzailea Uxue Alberdi izango da.

Elgoibarko Udalak euskarazko produktuen katalogoa kaleratu du

Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak euskarazko produktuen katalogoa banatu du Ikastolako eta Herri Eskolako umeen artean. Kanpaina honen bidez, hizkuntzaren transmisioan eragin nahi da, gurasoei euren seme-alabentzat lagungarri izango diren euskarazko produktuen berri emanez. Musika, DVD filmak, informatika, aldizkariak, liburuak, jostailu eta jokoak, gurasoentzako produktuak bildu dituzte, besteak beste, katalogoan. Katalogoa etxean jaso ez duenak herriko liburu dendetan, Kultur Etxean edota Gotzon Garate Udal Liburutegian jaso dezake, eta online ere badago, www.katalogoa.eus webgunean edota Elgoibarko Udalaren webgunean, hain zuzen, Euskara Sailaren atalean.

Errege magoen desfilearako izenematea abenduaren 21ean

Urtarrilaren 5ean izango da Ekialdeko Errege Magoen desfilea, eta bertan parte hartu nahi duten umeek abenduaren 21ean eman beharko dute izena Udal Liburutegian, 17:00etatik 19:30era.

'Biziminez' dokumentala emango dute 'Baguaz!' egitasmoko azken saioan

Baguaz! bidaia esperientzien barruan, Biziminez dokumentala aurkeztuko du Josu Iztuetak abenduaren 19an, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. 42 minutu irauten ditu filmak, eta Pablo Dendaluz da egilea. Dokumentalak aspaldiko bi lagun elkartzen ditu: Antxon Arza, eta Josu Iztueta. 2015ean AEBetara egindako bidaia bat kontatzen du, New York-en hasi eta San Franziskon amaituko dena. Furgonetaz egin zuten bidaia; paisaia zoragarriak ikusi zituzten eta jende jatorra ezagutu zuten. Bi lagunak kanpoko nahiz barneko paisaiei begira ikusiko ditugu dokumentalean. 19:00etan hasiko da emanaldia. *Baguaz!* egitasmoa Elgoibarko Izarrak antolatzen du, Kultura Sailak diruz lagunduta.



98 umek hartu dute parte parrokiako jaiotzen lehiaketan



Domekan egin zuten Parrokiako Jaiotza lehiaketa, eta aurten 98 umek hartu dute parte. Mota guztietako materialez eginiko 18 jaiotza aurkeztu zituzten guztira, eta Lorena Garcia eta David Romeroren jaiotzak irabazi du lehiaketa.

2018ko egutegia aurkeztu du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak eguaztenean aurkeztu zuen 2018ko egutegia. Aurtengoan Elgoibarko Merkataritza eta Ostalaritza izan da lehiaketako gaia. Guztira 18 herritarrek hartu dute parte, eta 69 argazki aurkeztu dituzte. Udaleko, Ongarri elkarteko eta Txankakuako ordezkariak osatu duten epaimahaiak 13 argazki aukeratu ditu, eta saridunak ondorengoak izan dira: Julen Ansola, Gurutze Ariznabarreta (3 argazki saritu), Eulogio Mancebo (2 argazki saritu), Maria Exposito (3 argazki saritu), Oier Ramos (2 argazki saritu), Imanol Cerdeira eta Aitor Zabala. Saridunek 70 euroko balioa duen erosketa-bonua jaso dute, saritutako argazki bakoitzeko. Argazkiekin batera, marrazkiak ere ageri dira egutegian. Herri Eskolako eta Ikastolako LHko 129 umek hartu dute parte. Hauek dira irabazleak: Ane Calleja, Ivania Alvarado, Aiyana Ibañez, Mara Castañares, Geraldine Franco, Omaira Laroub, Maite Uranga, Nahia Meabebasterretxea, Elena Amaro, Ane Iriondo, Maria Ferrandez eta Jon Martin. Saritutako hurrek 30 euroko erosketa-bonua, marrazteko materiala eta saritutako marrazki guztiekin prestatutako egutegi berezi bana eskuratu dute.



Udalak 7.000 egutegi txiki kaleratu ditu, eta herri osoko postontzietan banatuko ditu; egutegi handiak (3.500 ale), aldiz, elkarte, eskola, erakunde eta abarretan banatu dituzte. Horrez gain, Kultur Etxean ere eskuratu ahal izango dira egutegiak.



Aita Agirre eraikinari buruzko erakusketa jarri dute Kultur Etxean

Elgoibarko Udalak Aita Agirre eraikinari buruzko erakusketa jarri du ikusgai Kultur Etxean. Bederatzi panel informatiboz osatutako erakusketa da, eta bertan azaltzen da Aita Agirre eraikina nola berrituko duten eta etorkizuneko eraikina nolakoa izango den. Abenduaren 22ra arte egongo da zabalik, arratsaldean, 18:30etik 20:30era.

2016 eta 2017ko memoriak eta 2018rako ildo nagusiak aurkeztu ditu Elgoibarko Izarrak urteko batzar orokorrean

Martitzenean egin zuen Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkarteak bazkideen urteko batzar orokorra. Besteak beste, 2016an eta 2017an egindakoen memoria eta datorren urterako ildo nagusiak aurkeztu zituzten bazkideen aurrean. 2017an eginiko lanen errepasoa egin zuten lehenik, eta gero memoria ekonomikoa aurkeztu zuten. Arduradunek esandakoaren arabera, iaz bezala, urtea diru galerarik gabe amaitzea aurreikusitako dute aurten ere. Datorren urteari begira, aurrekontua oraindik prestatu gabe dauka elkarteak, baina egiteko asmoen artean dituzten erronka nagusiak aitatu zituzten. BARREN astekariak 25 urte beteko ditu datorren abenduaren 24an, eta datorren urtea ospakizunen urtea izango dela aipatu zuten. Gabonetako ale berezian emango diote hasiera urteurrenari, eta egitaraua oraindik erabat lotu ez badute ere, urtean zehar hainbat ospakizun egingo dituzte. Langileen arteko ko-hesioa ere landuko dute 2018an, eta Zuzendaritza Batzordea osatzeko asmoa ere agertu zuten.



Iñaki Konde elkarteko presidentea eta egungo Zuzendaritza Batzordeko kideak.

Nerea Arriola biolinistak irabazi du Cidade Vigo lehiaketa

Hari Instrumentuen Galiziako Elkarteak antolatuta, Cidade de Vigo lehiaketa jokatu zuten joan zen asteburuan. Espainiako eta Portugalgo biolinista, biola-jotzaile eta biolontxalista gazteek parte hartu zuten, eta Nerea Arriola mendarorarrak lortu zuen lehen saria B Mailako biolin-jotzaileen artean. Aurten 60 musikari gazte hartu zuten parte. Lehiaketa berean, Olatz Ruiz de Gordejuela ere saritu zuten, Mendarorekin lotura handia duen gasteiztarra. D kategorian lehen saria eskuratu zuten.



Biraka dantza taldeak kalejira egingo du abenduaren 22an



Biraka dantza taldeak kalejira berezia prestatu du datorren barixakurako. Eguberrien harira, Olenzero, opariak eta beste hainbat gai oinarri izango dituen kalejira izango da. 18:30ean hasiko da ikuskizuna Maalako parkean. Dantzariak sei dantza eskainiko dituzte Maalako eszenatokian, eta ondoren, kalejira joango dira Kalegoen plazaraino. Ordu bete inguru iraungo du saioak, eta guztira, 160 ikaslek hartuko dute parte.

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du bihar Soraluzen

Elgoibarko Udal musika bandak Soraluzeko abesbatzarekin eskainiko du bihar kontzertua. Soraluzeko bandak 25 urte bete ditu aurten, eta urteurren horren barruan kokatzen da biharko emanaldia. 20:00etan izango da, Soraluzeko frontoian

Euskadiko Eskubaloi Kopako Lauko Finala Elgoibarren jokatu da abenduaren 22an eta 23an



Antolatzaileak eta taldeetako ordezkariak txapelketaren aurkezpenean.

Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak, Kirol Patronatuak, Sanlo eskubaloi taldeak eta Euskadiko Eskubaloi Federazioak antolatuta, Olaizaga Kirolegean jokatu da Emakumezkoen Euskadi Eskubaloi Kopa. Espainiako Ohorezko Senior Mailan jokatzen duten Bera Bera eta Zuazo taldeek eta Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatzen duten Kukullaga eta San Adrian taldeek parte hartuko dute Lauko Finalan. Abenduaren 22an Zuazok San Adrianen aurka jokatu du, 17:30ean; eta, bigarren partiduan, Bera-Berak eta Kukullagak jokatu dute elkarren aurka, 19:30ean. Finala abenduaren 23an izango da, 18:00etan. Emakumeen goi mailako eskubaloia bertatik bertara ikusteko aukera paregabea dela nabarmendu dute antolatzaileek eta kiroldegia betetzera deitu dituzte herritarrek.

Imanol Albizu 'Goikoetxe' Gabonetako Harrijasotze Kopatik kanpo gelditu da

Zazpi urtean harrijasotzea lagata izan ostean, orain urtebete ekin zion berriro prestatzeari Imanol Albizu Goikoetxek, Elgetan bizi den Idorbe auzoko harrijasotzaileak. Gabonetako Harrijasotze Kopako bigarren kanporaketa jokatu zuten abenduaren 2an Elgetako frontoian. Goikoetxek, Xabier Peñagarikano aizarnazabaldarrak eta Orioko Gorka Etxeberriak neurtu zituzten indarrak; eta, lehia estua izan ostean, Peñagarikanok lortu zuen finalerdietarako sailkatzea, Goikoetxeri lau jasaldiren aldearekin irabazita.



75. Mugertza krosetako kartela berezia izango da

Martin Ricardo argazkilariak Juan Mugertzari 1919. urtean Tolosan ateratako argazkiak iragarriko du Juan Muguerza Nazioarteko krosaren 75. ekitaldia. Minixeta atletismo taldeak jakinarazi dutenez, inoiz argitaratu gabeko argazkia da aurtengo karteletoa. "Ez dago omenaldi hobetarik krosari izena ematen dion gizonarentzako", esan dute.

Eskolarteko xake txapelketa jokatu dute domekan

Elgoibarko Xake Taldeak Juan Mugertza kalean duen egoitzan jokatu dute 14 urtetik azpikoentzako Eskolarteko Xake Txapelketa domekan, 10:15etik aurrera. Parte hartzeko interesa dutenek 10:00etarako agertu beharko dute bertara izena ematera. Egun eta leku berean senior mailako txapelketa azkarra antolatu dute xake taldekoek. 16:00etan izango da. Hemen ere, parte hartu nahi dutenek bertan agertu beharko dute.



Bestalde, Elgoibarko 27. Maisuen Nazioarteko Xake Txapelketa bihar, hilaren 16an, hasiko da. Hona hamar parte hartzaileak: Gabriel Del Rio, Henroik Teske, Carlos Suarez, Michael Oratovsky, Santi Gonzalez, Javier Moreno, Milos Stankovic, Sergio Trigo eta Gustavo Barrenetxea. Euskadiko Xake Federazioak zuzenean eskainiko ditu udaletzeko pleno aretoan jokatu dituzten partidak.




Beñat Arrizabalaga eta Ander Conde Gipuzkoako txapelkun gomazko paleta txapelketan



Lagunak Pilota Eskolako Beñat Arrizabalagak eta Ander Condek Zarautz taldeko bikotearen aurka Lizaso eta Contreras jokatu zuten Gizonezkoen Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Gomazko Paleta Txapelketaren finala, Zarautzko Aritzatalde frontoian. Elgoibartik joandako zaleen babesa eduki zuen Lagunak taldeko bikoteak, eta lehia estuaren ostean, elgoibartarrek 25 eta 20 irabazi zieten zarautzarrei. Hala, Hirugarren Mailako Gipuzkoako txapela eskuratzearaz gainera, hurrengo denboraldian Bigarren Mailan aritzeko txartela eskuratu dute Arrizabalagak eta Condek.

Gaizka Loiolak ezin izango du eski denboraldi honetan lehiatu bihotzeko arazoengatik



Eski denboraldia hasteko atarian, lehiatzeari uko egin beharko diola jakinarazi du Gaizka Loiola elgoibartarrak (argazkian laugarrena), bihotzeko arazoengatik. Espainiako Kirol Batzorde Gorenean egin zioten mediku azterketa batean bihotzean anomalia bat atzeman zioten eta ebakuntza egin beharko diote. Urte osoa denboraldia prestatzen eman ostean jaso du berria Loiolak, Austriara nazioarteko lehiaketa batera zihoan unean. Hurrengo hiru hilabeteetan atseden hartu beharko du, eta galdutzat eman du eski denboraldia. Edonola ere, ebakuntzaren ostean kirol lehiara "normaltasun osoz" itzuli ahal izango duela zehaztu du. Azken egunetan jaso dituen babes eta animo mezu guztiak eskertu ditu Loiolak sare sozialetan. "Lasai nago, eta berriz entrenamenduetara itzultzeko gogoz, lehen baino indar eta motibazio handiagorekin. Azken bi urteak oso txarrak izan diren arren, egoera guztietatik ikasten da zerbait, eta hortaz, indarberrituta eta gerra emateko gogoz itzuliko naiz".

Sanloren neguko kanpaina

Sanlo eskubaloitako taldeak hainbat ekintza antolatu ditu neguko oporraldirako, abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra bitarteko. *Murgildu zait ez eskubaloian* kanpainaren helburua kirola aisialdirako tresna gisa proposatzea eta ongi pasatzea direla azaldu dute. Elgoibar, Deba, Mendaro eta inguruko herrietako neska-mutilek (2007tik 2009ra bitartean jaiotakoek) eman dezakete izena Sanloren Neguko Kanpainan. Entrenamendu saioez gainera, Bilboko PINera irteera bat eta txapelketa txiki bat antolatu dituzte, besteak beste. Abenduaren 22a izango da izena emateko azken eguna. Interesatuak 35 euro sartu beharko dituzte honako kontu zenbakian: ES75 3035 0007 29 0070065927 (Laboral Kutxa). Informazio osoagoa eta izena emateko fitxak Sanloren webgunean.

Lutxo Iturrinok entrenatuko ditu C.D. Elgoibarreko jubenilak

Lutxo Iturrino (Mutriku, 1963) izango da aurrerantzean Ohorezko Mailan diharduen C.D. Elgoibarreko jubenilen taldeko entrenatzailea. Hamahiru denboralditan 262 partida jokatu zituen Lehen Mailan, Realarekin eta Athleticekin, besteak beste. 37 urterekin laga zion futboleko jokatzeari eta entrenatzaile lanetan aritu da azken urteotan. Arlo honetan ere esperientzia handia pilatu du, ume eta gazteen taldeak entrenatzen bereziki. 2015-2016 denboraldian Basauritarrak taldeko jubenilen entrenatzailea izan zen Ohorezko Maila Nazional indartsuan.

Bestetik, Haundiko hilabetezko jokalaria onenaren saria Unai Mendikutek irabazi du azaroan. Sigma jabetxean bi lagunentzako afaria jasoko du saritzat.



LANA.....
Eskaerak

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Ospitalean, interno moduan eta orduka lan egiteko prest.
☎ 632 841 284

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko.
☎ 699 535 728 (Enrike)

Adinekoak zainduko nituzke, etxe nahiz ospitalean. Formakuntza eta esperientzia handia dut.
☎ 602 161 496

Neska euskalduna eskaintzen da garbiketa lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia handia daukat.
☎ 628 524 420

Neska euskalduna eskaintzen da adinekoak eta gaixoak zaintzeko.
☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke, arratsaldean. Elgoibarren zein Mendaron.
☎ 602 490 595

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Interna edo orduka. Asteburuetan ere bai.
☎ 632 953 013

Umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 633 401 678

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, gauetz ere bai.
☎ 629 872 270

Adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 617 350 350

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gida-baimena daukat.
☎ 674 687 863

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Interna edo orduka.
☎ 634 209 087

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Ordu-tegi malgua. Interna edo orduka.
☎ 688 627 687 (Katherine)

Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko.
☎ 637 102 725 / 943 744 033

Eskaintzak

Zerbitzaria behar da Mendaroko taberna batean asteburuetan lan egiteko.
☎ 678 396 522 (Maidier)

ETXEBIZITZAK.....
Etxea alokatzen dut San Roke kalean. Bi gela, bi komun, berogailu zentrala, kometan lur radiala. Bizitzera sartzeko moduan.
☎ 660 042 159

Etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ 602 490 595

Babes Ofizialeko etxebizitza salgai lñi-gez Karkizao kalean. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Bi logela, komuna

eta jangela-egongela. Hegoaldera begira. Garajea eta trastelekua ditu.
☎ 678 498 626 / 680 266 090

Babes Ofizialeko etxebizitza salgai lñi-gez Karkizao kalean, Elgoibarren. Bosgarren solairu batean, igogailuarekin. Hiru logela eta bi komun ditu, eta hegoaldera begira dago. Garajea eta trastelekua ere baditu.
☎ 620 025 161 / 699 547 832

Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ 688 718 853

Logela bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 669 173 635

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 626 329 979

BESTELAKOAK.....

Karakate elkarte mikologikoko akzioa saltzen dut.
☎ 679 843 332



I. urteurrena
Irene Unzueta Iriondo
2016ko abenduaren 12an hil zen.



II. urteurrena
Anacleto Salaverria Gurruchaga
2015eko urriaren 15ean hil zen.

Haien oroimenez meza izango da zapatuan, abenduaren 16an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zareteneoi alde zurretik eskerrak.



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxebizitza bat erosi berri dut lehen jabe bakarrarena zen eta zatiketa horizontala egin gabe zeukan etxalde batean [jabetza horizontala ondasun higiezin bateko jabeek beste jabeekiko betebeharrak eta eskubideak ezartzen dituen arau multzoa da]. Jakin nahiko nuke ea beharrezkoa den etxaldea jabetza horizontalaren arabera zatitzea.

Jabe bakarrarena den etxalde bat jabe gehiagoren esku gelditzen denean ezinbestekoa da eraikinaren zatitze horizontala egitea, bereziki jabeekide bakoitzak ordaindu behar duen gastu komunaren portzentajea eta ondasun higiezinaren gaineko zerga kalkulatzeko orduan arazorik sor ez dadin.

Zatitze hori egin ezean legeak ezartzen du ondasun-erkidegoei dagokien araudia aplikatu behar dela gastuak zeinek eta zein neurritan ordaindu behar diren kalkulatzeko. Zatitzea onartzen bada, eskritura publikoa egin beharko da eta Jabetza Erregistroan jaso aldatuta, balioa izan dezan. Dokumentu pribatu bat ere egin daiteke, baina hori ezin da Erregistroan eraman, eta beraz, sinatu dutentzat bakarrik izango du balioa, baina ez gerora ager daitezkeen hirugarren pertsonentzat.

AHOLKUA: Prozesu hori konplikatu xamarra denez, gomen-dagarriena profesional bat egitea da. Kasu horretan, egokiagoa izango zen etxalde horren jabeak eraikinaren zatitze horizontala egin izan balu, etxebizitza bat saldu aurretik. Izan ere, etxejabe guztiak jarri beharko dira ados horretan, eta baita etxebizitza edo lokal bakoitzari ezarriko zaion kuotaren zenbatekoan ere.



ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Oinatzi!** 10,9,8,7... alegatu da zure urtebetetze eguna. Patxo portolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Nahia!** Etxeko printzesak 5 urte! Oso ondo pasa! Muxu bat etxekoen, eta bereziki Hodeiren partez.




Zorionak, **Beñat,** abenduaren 10ean 7 urte bete zenituelako. Etxekoen eta bereziki, Maddi eta Garaziren partez.



Zorionak, **Nora,** igandean 9 urte beteko dituzulako. Mila kilo zorion! Roke, Markel eta familia osoaren partez.



Zorionak, **Paula** igandean bi urte egingo dituzulako, eta zorionak, **Marko**, gaur urte bat egin duzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **Maria eta Ohian,** bihar 15 eta 6 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Klara,** abenduaren 21ean 10 urte beteko dituzulako. Ondo ospatu eta jarraitu horren alai. Muxu asko familiakoen partez.

SALENTO
BAR PIZZERIA

Pedro Migel Uruzuno, 10 - 20870 Elgoibar
salento_elgoibar@hotmail.com
Facebook/Salento de Carlo



Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar

Gabon zoriontsuak!



2018a ondo hasi nahi baduzu etor zaitez Salentora urte berri gauan 00:30etatik aurrera goizaldera arte zabalik izango dugu eta!

BANAKETAREN ORDUTEGIA
Asteleheneetik ostegunera:
20:00etatik 23:00etara
Ostiral eta larunbatak:
20:00etatik 23:30era
Igangandean:
13:00etatik 16:00etara
20:00etatik 23:00etara

943 740 196

Asteako menua 10,80€
Asteburuko menua 13€

Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian edo www.barren.eus webgunean

943 744 112

Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR

Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO

Zerbitzu bakoitzean, toalla eta erabili eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higienezaren gaineko araudiak eskatzen duena behar bezala.

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar txukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

*Ondo
pasa
gabonak!*

Kontsultatu hemen gabonetako ordutegia:

www.peluqueriajoseantonio.com



Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492

Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

39 URTEZ ZUEKIN

RPS: 183/12

San Francisco, 21
20870 ELGOIBAR
Tel: 943740359

Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

Gure urteurrena ospatzeko oparia:
Boleto hau ekarriz gero
10€ko deskontua
eskuratuko duzu zure erosketan.
Erosketa bakoitzeko txartel bat.

15 BARIKAKUA

19:00 *Volar* dokumentalaren emanaldia, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Ondoren, solasaldia, Mujeres al cuadrado elkartekoekin.

22:00 Antzerkia: *Ikasgaia*. Taupada antzerki taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

16 ZAPATUA

11:00 Nazioarteko Xake Txapelketaren aurkezpena. Udaletxeko pleno aretoan.

12:30 Mufomi eta Erreplika prehistorikoen museoetara bisita. Morkaiko eta Leizarpe espeleologia taldeek antolatuta. Artetxe auzoko eskolaurrean.

17 DOMEKA

10:15 Eskola Kiroleko xake txapelketa. Zubi-Ondo xake elkartearen egoitzan.

16:00 Gabonetako xake txapelketa azkarra. Zubi-Ondo xake elkartearen egoitzan.

16:30 Magia ikuskizuna: Txan magoa. Herriko Antzokian

18 ASTELEHENA

19:00 Hitzaldia: 'Etorkizuna prestatzen'. Conchi Rodriguez Atzegi fundazioko arduradunak eskainiko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Nuala elkarteak antolatuta.

21 EGUENA

17:00 Errege Magoen desfilerako ize-nematea. Udal Liburutegian.

19:00 Musika jaialdia. Mendaroko Ameikutz musika eskolako ikasleen jaialdia. San Agustin kulturguneko aretoan.

20:00 Kirol Federatuaren urteko sarien banaketa. Musika Eskolako auditoriumean.

22 BARIKAKUA

13:00 Nazioarteko Xake Txapelketako sari banaketa. Udaletxeko pleno aretoan.

20:00 Musika Eskolako gabonetako kontzertua. San Bartolome parrokian.

20:30 *Alicia en el país de las maravillas*. Aurrez grabatutako ballet emanaldia. Herriko Antzokian.

23:00 Kontzertua: Fractality. Sinuosek antolatuta.

URTE ZAHAR GAUEKO KOTILIOI AFARIA

- ✦ Urdaiazpiko iberikoa
- ✦ Foie canard
- ✦ Porru eta otarrainskaz beteriko brick-a
- ✦ Txangurro-salpikoa
- ✦ Otarrainskak plantxan
- ✦ Arrain krema
- ✦ Arraina (merkatuaren arabera)
- ✦ Azpizuna
- ✦ Postrea

Ardoak:

- ✦ Kriantza beltza
- ✦ Ardo zuria
- ✦ Txakolia
- ✦ Lambrusco ardoa
- ✦ Txanpaina
- ✦ Kafea eta kopa bat

***DJ-a gau guztian zehar
etorri nahi duenarentzat!***

55€

Sigma jatetxea

Zizilion, 1 - Elgoibar

943 748 531 - 675 708 160

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

**G
U
A
R
D
I
A
K**

09:00 - 22:00

- 15 Barixakua FERNANDEZ
- 16 Zapatua YUDEGO
- 17 Domeka YUDEGO
- 18 Astelehena ORUESAGASTI
- 19 Martitzena BARRENETXEA
- 20 Eguaztena IBAÑEZ
- 21 Eguena GARITAONANDIA
- 22 Barixakua ETXEBERRIA

GUARDIAK 20:00 - 22:00

Guardia Elgoibartik kanpora de-
nean, asteburuetan izan ezik:
BARRENETXEA (Elgoibar)
Errosario, 26 - 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)
San Agustin, 3 - 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Zinea (Herriko Antzokian)



'Oro'

16 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)
17 domeka, 19:00
18 astelehena, 21:30



'Red de libertad'

21, eguena, 21:30

Azaroan hildakoak

. Seberi Ulacia Mallea

89 urte, azaroak 1

. Txomin Barrenetxea Urkiola

78 urte, azaroak 5

**. Jose Carlos Rodriguez
Martinez**

61 urte, azaroak 13

. Dolores Dominguez Anglade

87 urte, azaroak 13

. Jose Luis Rubio Aizpurua

46 urte, azaroak 23

**. Mari Luz Uriarte
Arizmendiarrjeta**

84 urte, azaroak 27

. Evaristo Valdes Martinez

76 urte, azaroak 27

. Isabel Escudero Fernandez

58 urte, azaroak 30

**. Hermenegildo Sanchez
Fernandez**

84 urte, azaroak 30



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Manu Sanchez

Unai Villena



«Esanen dute / hau / poesia / eztela, / baina nik / esanen diet / poesia / mailu bat / dela» idatzi zuen Gabriel Arestik *Harri eta Herri* poema-liburuan, 1964an. Beharbada poesia urbanistikoa sortu nahi izan zuten herriko agintariek mende erdi pasatxo beranduago artelan hau landatu zigutenean; akaso metafora urbanistiko arestiarra izan liteke, edo agian diru-xahutze artistiko-esperpentiko bat gehiago besterik ez. Edonola, orain ez dio axola: aspaldi galdu zuen gaurkotasuna eta utzi zion herrian hizketagai izateari. Pista beltzaren gainean ageri den alboko eraikinari buruzkoak, ordea, duela gutxi ibili dira bologure artean. Sutearen irudiak bolbora bezala zabaldu ziren Interneten, Whatsappeko taldeetan erruz

partekatu genituen eta, gauerako, telebistan ere emana zuten balkoitik deiadarka ari zen gizonaren grabaketa: keak belztutako estutasun-uneak, bizilagunengatikoz kezka, larritasunezko egurats arnasmaitza... suhiltzaileek garrak amatatu bitartean, bestelako su bat ari zen pizten gure kontzientzietan. Ikuskizunak molotov koktel baten antzera zartarazi zigun ezinegona: bat-batean guztiok bihurtu ginen inspektore, kazetari, aditu; orok genekien nork-zergatik-nola; askori barnean daramatzagun txakur eta epaileak esnatu zitzaizkigun oldarka, eta norbaitek idatzi zuen *BARRE*Nek Youtubera igotako bideoaren iruzkinetan, sututa, ziurrenik beste askok ere pentsatzen zutena: "Tipo hau ez da normala! Berari eman behar genioke sua!". Penatuta eta inpotentziaz beterik irakurri nituen hitzok, pentsatuz ezer sutara botatzekotan, iruzkingile harena bezalako jarrerak bota beharko genituzkeela aurrena. Gertatuko da beste ezbeharren bat beste nonbait beste norbaitek eraginda, iratzarriko zaizkigu barneko mamuak, etorriko dira dena dakitenak beren egia azaltzera, esango dute ez direla zurrumurrak, baina nik esango diet zurrumurrak mailuak direla. Eta gutako inor ez dagoela salbu: harrizko aurreiritziz jositako herri honetan, edonoiz eror dakiguke gainera mailukada edonori.

*"Etorriko dira dena dakitenak beren egia azaltzera,
esango dute ez direla zurrumurrak, baina nik esango diet zurrumurrak mailuak direla"*

Baguaz! bidaia-esperientziak

Biziminez

Josu Iztueta



Dokumentalak aspaldiko bi lagun elkartzen ditu: Antxon Arza eta Josu Iztueta. 2015ean AEBetara egindako bidaia bat kontatzen du, New Yorken hasi eta San Frantziskon amaituko dena. Furgonetaz egin zuten bidaia. Paisaia zoragarriak ikusi eta jende jatorra ezagutuko dute, baina hori bezain garrantzitsua da bizitzari ematen dioten begirada. Bi lagunak kanpoko nahiz barneko paisaiei begira ikusiko ditugu dokumentalean.

Abenduak 19, asteartea
Kultur Etxeko hitzaldi gela
19:00

Antolatzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Leizorako Topagunea

Babeslea:



ELGOIBARKO
UDALA

K
U
L
T
U
R
A

elgoibar
bidi-bizirik



EUSKARALDIA